

# Ikastetxeak oso pozik informatikako praktikekin, eta gu ere bai!

Arrobia Ikastolan irakasten dugun MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK erdi maila heziketa zikloko zazpi ikasle praktikak egiten ari dira aurten ondorengo ikastola eta ikastetxeetan, ondorengo ikastola eta ikastetxeetan zein publikoetan ere: Abusu (Bilbo), Urretxindorra (Bilbo), Begoñazpi (Bilbo), Lauro (Loiuzate), Andra Mari (Leioa), Jado (Erandio), Bihotz Gaztea (Santurtzi), Asti Leku (Portugalete) eta Beurko BHI (Barakaldo).

**B**IGARREN MAILAN DAUDEN IKASLEEK 380 ORDUTAKO IRAUPENA DUEN LANTOKIKO PRESTAKUNTZA KURTSOA ENPRESA BATETAN EGIN BEHAR DUTE, MARTXOTIK MAIATZERA. IKT arduradunek daukaten lan karga ikusita ikastola/ikastetxeetara hurbiltzea ideia egokia zela pentsatu dugu aurten eta, dudu barik, asmatu egin dugu!

Informatika familiako heziketa ziklo honetan ikasleek ondorengo gaitasunak lortzen dituzte:

- **Ekipoak eta periferikoak muntatu, instalatu eta konfiguratu.**
- **Postu bakarreko eta sareko sistema eragileak instalatu eta ustiatu (GNU/LINUX eta WINDOWS inguruneak)**
- **Ingurune txikietan sare lokalen zerbitzuak instalatu eta mantendu (kableatua, rack-ak, proxy-ak, swebakiak, sarbide puntuak.**
- **Interneteko zerbitzuak instalatu eta mantendu (direktorio aktiboa, DNS, DHCP, Terminal Server, SSH, FTP, proxy-cache, IIS, Apache).**
- **Web-aplikazioak instalatu eta konfiguratu. (HTML, web 2.0 tresnak, Moodle, Google Drive, Wordpress).**
- **Informatika-sistemetan segurtasun-neurriak ezarri.**

Beraz, gure ikasleak horrelako lanak burutzeko prest daude dagokien ikastola/ikastetxeetan:

• **Informatika gelan dagoen irakasleari laguntza ematen ekipoekin egon daitezkeen arazoak konpontzeko.**

• **Netbooketan zein mahaigaineko ekipoetan irudiak jartzen eta zerotik instalatzen.**

• **Ekipo berriak muntatzen eta zaharrak konpontzen.**

• **Ubuntu zein Windows sistema eragileetan instalazioak egiten.**

• **Informatika-aplikazioen mantenua betetzen.**

• **Makina birtualak sortzen eta kudeatzen (VMWare Workstation).**

• **Google Appseko plataformaren kudeaketa osatzen.**

Gainera, azalpen gutxi batzuk emanda ere ikasleek gaitasunak daukate ondorengoak egiteko:

• **Proiektore eta arbel digitalak konpontzen eta konfiguratzeko.**

• **Inprimagailuak konpontzen eta instalatzeko.**

• **Sare puntuak instalatzeko.**

Aurtengo esperientzia ikusita ziur gaude hurrengo ikasturtean gorago aipatutako ikastola/ikastetxeetan errepikatuko dugula. Baina zerrenda handitzea gura genuke. Hartara, interesa baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. •

